

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2024ko MAIATZAREN 31an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2024ko maiatzaren 31an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren  
Maria Isabel Vaquero Montero


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2024ko apirilaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de abril de 2024.**
  - **2024ko maiatzaren 13an egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 13 de mayo de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Danena txirrindularitza taldeak eginiko diru-laguntza eskaera./ Solicitud de subvención de Danena txirrindularitza taldeak correspondiente al año 2024.**
- 5. 2024 urterako Erroitz Baltzu Mugatuak, Aiurri hamaboskarirako, eginiko diru-laguntzaren eskaeraren onespena./ Aprobación de la solicitud de subvención de la Sociedad Limitada Erroitz para el año 2024, para la revista quincenal Aiurri.**
- 6. 2023ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada/Aprobación definitiva de la Cuenta General del 2023**
- 7. Larraulgo 116 PRren txukunketa lanen esleipena/Adjudicación de los trabajos de limpieza del PR 116 de Larraul.**
- 8. Beste batzuk/Otros.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

..//...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2024 urteko apirilaren 26an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.
- ▣ 2024 urteko maiatzaren 13an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 22/2024tik 29/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EREITEN	4.986,41
SGAE	378,51
AGEDI	11,34
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	425,41
SVRNE MUTUA DE SEGUROS	1.149,76
TELEFONICA	0,80
TELEFONICA	10,41
SVRNE MUTUA DE SEGUROS	182,49
EKILUZ	26,78
EKILUZ	51,97
GILBE	174,87
KEY-LAN	28,17
TEK LARRAUL	149,45
AKETEGI	43,50
ALKAIN	277,89
IPAR FIBRA	262,92
UDANE ALCALDE	112,50
TEK LARRAUL	246,77
REPSOL	20,57
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.325,49
MAQUELSA	46,04



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZUMETA BIZITEGIA	164,65
SECURITAS DIRECT	55,04
SECURITAS DIRECT	54,39
LARRAULGO HERRI OSTATUA	11,20
DIONISIO ORMAZABAL	167,90
ZU ETA BIOK	1.683,82
KIROLZER	51,85
BELARMENDI	2.896,74
ASOCIACION LARRAULGO TOKIKO ENERGIA KOM.	110,11
ASOCIACION LARRAULGO TOKIKO ENERGIA KOM.	110,11
ASOCIACION LARRAULGO TOKIKO ENERGIA KOM.	110,11
EBA ERKIZIA	1.384,78
IZFE	1.928,62
JULEN LARRUSKAIN	80,16
TELEFONICA	10,41
TELEFONICA	129,92
TELEFONICA	83,49
MAITE ARANA	44,97
EKILUZ	42,62
OSK	133,10
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	93,31

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **19.259,35** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**


### **DANENA TXIRRINDULARITZA TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Danena Txirrindularitza Elkarteak eginiko eskaera, non dioen, bailarako ume eta gazteekin txirrindularitza jarduera aurrera eramaten dutela, baina jarduera hau aurrera eramateko finantzazioa behar dutela. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2024ko Udal aurrekontuetako 422.341.00.02 Kontu sailaren kargura.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

#### **2024 URTERAKO ERROITZ BALTZU MUGATUAK, AIURRI HAMABOSKARIRAKO, EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA**

Ikusirik 2024 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari memorian azaldutako egitasmoak aurrera eramateko diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2024 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurreikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-ari 2024 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2024 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.


HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **2023KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2023 ekitaldikiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzen.

Ikusirik 2024ko apirilaren 30ean argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2024ko maiatzaren 2tik 22ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, udalbatzak, aho batez, ondorengoa:

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2023 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespina ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO 116 PR-ren TXUKUNKETA LANEN ESLEIPENA**

Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten Belarmendi, Mendiko nekazaritza, S.L. enpresari, Larraulgo 116 PRren Txukunketa lanak esleitzea, izan ere, gaur egun bidea zeharka ezina dagoelako.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.


Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3. *En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

4. *Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Belarmendi, Mendiko nekazaritza, S.L. enpresari, Larraulgo 116 PR ren txukunketa lanen esleipena onestea, 5.374,38€ (BEZa kanpo) dirukopuruan, 1.0000.210.163.00.01 kontu sailaren kontura “Azpiegitura eta ondasun gastuak: Luiziak, bide eta kale garbiketa”.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.


### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **8.1. 3/2024 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA (KREDITU GEHIGARRIAK)**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.227.920.00.07 2024	AHOLKUL:AZTERK.,LAN TEKNIK..BULEGOA	300,00	5.000,00	5.300,00
1 0000.226.337.20.06 2024	JARDUERA KULTURALAK: UDALEKUAK ETA JARD.	5.000,00	1.000,00	6.000,00
1 0000.685.933.00.01 2024	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	1.000,00	6.000,00	7.000,00
1 0000.210.323.00.01 2024	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.ESKOLA	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1 0000.210.920.00.01 2024	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA	1.000,00	500,00	1.500,00
1 0000.227.153.40.07 2024	AZTERK.ETA AHOL.ZERBIT: PREBENTZIOA.BRI	1.400,00	100,00	1.500,00
1 0000.210.163.00.01 2024	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	10.500,00	5.000,00	15.500,00
1 0000.623.341.00.01 2024	URMAELAN JARTZEKO ENTRENAMENDU ESTAZIOA	0,00	1.000,00	1.000,00
<b>GUZTIRA</b>		20.200,00	19.600,00	39.800,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2024	GERAKINAK	19.600,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>19.600,00</b>

BIGARRENA: Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.